



Jertelako  
argazki  
lehiaketa  
2013

## **SAN PRUDENTZIO JAIETAKO ARGAZKI LEHIAKETA**

- 1.- Parte hartzaileak: Edozein argazkizale, adin mugarik gabe.
- 2.- Gaiak: 2013ko San Prudentzio jaiak
- 3.- Formatoa: Paper fotografikoan eta 30 x 40ko kartulina fin baten gainean. Argazkilari bakoitzak 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Saridunei jatorrizko irudiak formatu digitale-na eskatuko zaie.
- 4.- Sariak:
  1. saria: 150 €
  2. saria: 100 €
  3. saria: 50 €
- 5.- Lanen aurkezpena: Argazkiak itxitako gutun-azal batean aurkeztu behar dira eta barnean izen-abizenak, helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoa eta igorritako irudien izenburua jarriko dira. Ez dira urte bat baino zaharragoko argazkiak onartuko. Helbidea: Lazkaoko Udala-Kultura. Euskadi plaza, 1 20210 LAZKAO (epea maiatzaren 24an amaituko da).
- 6.- Argazki irabazleak datorren urteko San Prudentzio jaietako egitarauan argitaratuko dira.
- 7.- Epai-mahaia: Argazkilaritza munduan ezagunak diren lagunez osaturik izango da. Beren erabakia apelaezina izango da eta edozein gertakariren aurrean azken hitza izango du-te. Sariak hutsik uzteko eskubidea onartzen zaie.
- 8.- Epai - erabakia: Ekainaren 7an, arratsaldeko 18:00etan emango da Udaletxean.
- 9.- Lanen jabetza eta erreproduziorako eskubideak: Lehiaketa honetan parte hartzea, norberak egin dituela lanak ziurtatzea esan nahi du, hau da, hirugarrenen eskubiderik ez dago eta edozein irudi-eskubideen erreklamazioen ardura beregan hartzen duela. Era berean, antolakuntzak ez du inolako ardurarik hartzen kasu honetan ere partehartzaileek Copyrighta oker erabili izanagatik. Saritutako argazkiak Udalaren jabegokoak izatera pasako dira; beraz, lehiaketarekin zer ikusia duten argitalpenetan nola berariazko argitalpen edo web orrilladean erreproduzitzeko erabiliak izan ahalko dira, beti ere egilearen izen osoa jarriko delarik. Lanak sarituak izan ez arren, erabili ahal izango dira baldintza berdinetan.
- 10.- Oharrak: Antolakuntzak lan guztiak arreta handiz zainduko ditu; hala ere, lanak galdu edo matxuratuko balira, antolakuntzak ez du inolako erantzukizunik hartuko: Lehiaketa honetan parte hartzeak goian aipatutako oinarri guztiak erabat onartzea dakar.

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakin arazten da antolatzaileei ematen zaien izaera pertsonaleko datuak isilpean tratatuak izango direla.

**ANTOLATZAILE: LAZKAOKO UDALA**

**LAGUNTZAILE: ADOS ARGAZKIDENDA  
PHOTOGRAFIK**